

Agenda

[Home](#) :: [Agenda](#)

Agenda

Santiago eta Santa Ana Jainen Egitaraua 2013

Astigarragako Santiago eta Santa Ana jaiak direla eta antolatu diren ekitaldien egitaraua.

Ospakizuna


Non: **Astigarraga**

Hasiera: **2013/07/20**

Bukaera: **2013/07/28**

Tokia: **Astigarraga**

Antolatzailea: **Astigarragako Udala**



Deskribapena

EGITARAUA:

Uztailak 20, larunbata:

17:30: Astigarragako XI. HERRI KROSA. Trintxerpeko Club Atletico-k antolatua.

Izenematea 16:30etik aurrera Apeztegi plazan eta sari banatzea 19:00etan plaza berean.

Uztailak 24, asteazkena:

10:30: TOKA eta POTO lehiaketa Galtzaur elkarteak antolatua beren egoitzaren aurrealdean.

12:00: Pilotari kalean kokatutako FERIAK irekiko dira..

12:00: TXUPINAZO TXIKIA Xaguxar elkarteak antolatua eta BURUHANDIEN IRTEERA Norberto Almandoz musika eskolako TRIKI ETA PANDEROEK lagunduta.

13:30: ERRETIRATUEN BAZKARIA Galtzaur elkartean.

14:00: HAURRENTZAKO BAZKARIA Foru plazan Xaguxar taldeak antolatua.

14:00: GAZTELEKUKO BAZKARIA.

16:00: HAURRENTZAKO ANIMAZIOA Xaguxar taldeak antolatua Foru plazan.

17:00: ZOOZOOM haurrentzako ikuskizuna Foru plazan.

18:00: TXOKOLATE JATEA Foru plazan Xaguxar taldeak antolatua.

19:00: TXALAPARTARIAK, PREGOIA eta TXUPINAZOA.

Pregoilariak: Euskal Herritik kanpo jaiotako euskara ikasleak.

19:30: AKELARREaren kalejira trikitalari eta dultzaineroek lagunduta.

20:30: Gazte Asanbladaren txosnaren irekiera.

21:00: AKELARREaren antzezpena Murgia jauregiko lorategian.

23:00: GAZTE JAI diskoteka Joseba Barandiaran plazan.

23:30: LIRICA DE CERDOS eta LOS BONITOS DEL NORTE taldeak txosnan Gazte Asanbladak antolatua

Uztailak 25, osteguna:

07:00: AULKI JOKOA ETA TXOKOLATE JATEA Tolosako dultzaineroekin Foru plazan Xaguxar taldeak antolatua.

Saria: Iretza jatetxeak eskainitako bi lagunentzako otordu baterako gonbita.

09:30: Txirriskla taldeko TXISTULARIEN DIANA.

10:30: HAURRENTZAKO VI. TXIRRINDULARITZA PROBA 4-11 urte bitarteko haurrentzat Arrobitxulo kalean.

11:00: MEZA NAGUSIA Santiagomendiko Done Jakue ermitan.

11:30: HAURRENTZAKO JOKOAK (4 urtetik aurrera) Mundarro plazan Aurrera mutilak taldeak antolatua.

12:30: UDALBATZAREN SOKA-DANTZA Foru plazan.

13:00: ELEGANCIA MEXICANA mariatxia Foru plazatik abiatuta.

17:00: SOKAMUTURRA TXIKIA Foru plazan.

17:00: PASAI TXARANGA.

18:00: Astigar taldearen DANTZA-ERAKUSTALDIA pilotalekuan.

19:30: UMOREZKO BAKARRIZKETA SAIOA Barry Manley-rekin txosnan Gazte Asanbladak antolatua.

19:30: TROVAHAVANA talde kubatarra Joseba Barandiaran plazan.

23:45: LARRAIN-DANTZA herrikoia Foru plazatik abiatuta.

00:15: MANDOILEK taldea Joseba Barandiaran plazan.

00:15: GAU KUBATARRA Gazte Asanbladaren txosnan.

Uztailak 26, ostirala:

09:30: ITURENGO JOALDUNAK.

09:30: Astigarragako TRIKITILARI GAZTEAK.

STA. ANA eguneko ospakizunak Foru plazan Goldea eta Zipotza elkarteek antolatua

09:30: Idiak pisatzea.

11:30: SAGARDO DASTAKETA.

11:30: GOZOGINTZA AZOKA: erakusketa eta dastaketa.

11:30: IDI DEMA 1.700 kiloko harriarekin: Aiako Izeta, Erreneriako Rafa Irarreta eta Igeldoko Olasagasti.

12:00: BERTSOLARIAK: Xabier Zeberio eta Aitor Mendiluze.

14:30: Bazkari herrikoa. Txartelak Zipotza tabernan salgai.

14:30: ELKARTASUN BAZKARIA Gazte Asanbladaren txosnan.

18:00: HERRI KIROL JAIALDIA Foru plazan: auzoen arteko giza proben norgehiagoka eta gazteen arteko belargintzako probak.

18:30: ON EGIN MON AMOUR clown ikuskizuna Apeztegi plazan eta euria eginez gero eliz atarian.

19:30: TRIKITILARIAK.

20:00: LAIOTZ taldea Joseba Barandiaran plazan.

20:00: HEGALUZE PINTXOAK eta Gemikako piperrak parrillan erreta Joseba Barandiaran plazan.

20:00: Hileko azken ostiraleko kartel agerraldia Joseba Barandiaran plazan.

23:30: LAIOTZ musika taldea Joseba Barandiaran plazan.

00:00: ABORTO FALLIDO, ANBOTERS eta TXEMA taldeak txosnan Gazte Asanbladak antolatua.

Uztailak 27, larunbata:

10:00: Iker Ruizen oroimenezko XIII 3x3 SASKIBALOI TXAPELKETA kiroldegian egun osoan zehar Mundarro elkarteak antolatua.

Sariak 18:00etan banatuko dira.

12:00: PAINTBALL gunea eta KINEKT pantailak 12 urtetik gorakoentzat 13:30 arte Erribera plazan.

12:00: HAURRENTZAKO PUZGARRI ETA TAILERRAK Foru plazan 13:30 arte.

14:30: GAZTE BAZKARIA Gazte Asanbladaren txosnan.

16:00: PAINTBALL gunea eta KINEKT pantailak 12 urtetik gorakoentzat 19:00 arte Erribera plazan.

16:00: HAURRENTZAKO PUZGARRIAK ETA TAILERRAK Foru plazan 18:00ak arte.

17:00: BINGOA Galtzaur elkartean.

18:00: APAR FESTA Foru plazan.

18:30: SUGARRI SHOW fanfarrea.

19:00: ERIZ MAGOA Norberto Almandoz plazan, Galtzaur elkarteak antolatua.

23:00: ERRIMAK OINETAN Haatik dantza konpainiaren ikuskizuna pilotalekuan: dantza berriak bertsoei jarriak.

23:30: Testing, drogei buruzko informazio eta analisi gunea Tomas Alba kalean.

00:00: TXARANTUKADA, perkusio eta metalen kalejira.

00:00: SORPRESA, EUTSI eta JOXE REPLAY taldeak txosnan Gazte Asanbladak antolatua.

Uztailak 28, igandea:

12:00: Astigarragako eta Irrintzi konpartsako ERRALDOIAK eta BURUHANDIAK Hemaniko dultzaineroek lagunduta Foru plazatik abiatuko dira.

13:00: BETIZU PINTXOAK Foru plazan.

14:30: BETIZU JATEA Foru plazan. Txartelak Ikatza tabernan salgai.

17:00: PALA ERAKUSTALDIA urritasun fisikoa duten kirolarien eskutik.

Ondoren Jose Luis Berakoetxearen oroimenezko IX. ESKU PILOTA JAIALDIA pilotalekuan Mundarro elkarteak antolatua.

18:00: SIENTA LA CABEZA, ile-apainketa artistikoa musikaren eritmoarekin parte hartzaile ausartenentzat, Joseba Barandiaran plazan.

23:00: PIRATAS DE MALPIKA su kalejira Kale Nagusia-Galtzaur elkargunetik abiatuta.

00:00: Astigarragako II. FILM LABURREN LEHIAKETA: proiektzioak eta sariak banatzea txosnan Gazte Asanbladak antolatua.

Lotura interesgarriak

[Santiago eta Santa Ana Jaiak - Astigarraga](#)

[Astigarragako Udala](#)
